

Bortziritako Zerbitzuen Mankomunitatearen eta Nafarroako Bertsozale Elkartearen arteko dirulaguntza hitzarmena

BILDURIK:

Alde batetik Patxi Castillo Graciarena (NAN 44.564.653-Z), Bortziritako Zerbitzuen Mankomunitateko (IFZ P7154509I) lehendakaria denez, erakunde horren izenean eta indarrean dagoen legeak emandako ahalmenaren arabera.

Bertze aldetik, Nerea Bruño Artazcoz (NAN 29.138.979-A) Nafarroako Bertsozale Elkartearen (IFZ: G31264153) idazkaria den aldetik, erakunde horren izenean.

ADIERAZTEN DUTE:

- Nafarroako Bertsozale Elkarteak (hemendik aitzinera *elkartea*) Bortziritan bertsozaletasuna bultzatzeko egitasmoa gauzatzen duela Bortziritako Bertso Eskolaren bitartez.
- Egitasmo horrek hiru ardatz nagusi dituela: lehena, Bertsolaritza Irakaskuntzan programa deiturikoa, D ereduko Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikastetxeei eskaintzen zaiena; bigarrena, haur eta helduei bertso eskolatan parte hartzeko aukera ematen diena; hirugarrena, Bortziritan bertsolaritza sustatzeko ekitaldiak, lehiaketak eta jarduerak antolatzea xede duen programazioa.
- Bortziritako Zerbitzuen Mankomunitateak (hemendik aitzinera *mankomunitatea*), Euskara Zerbitzuaren bitartez, euskararen normalizazioa xede duela eta, zehatzago, euskararen ezagutza eta erabilera garatzea bizitza sozialeko eremu guzietan, baita helburu hori duten ekimenak babestu, bultzatu eta sustatzea ere. Horrez gain, mankomunitateak 2026-2031 aldian garatuko duen III. Plan Estrategikoan Bortziritako Bertso Eskolaren jarduna sustatzea eta babestea aurreikusten duela.
- Mankomunitateak ez du dirulaguntza deialdi publikorik egin ez dagoelako aipatutako helburuak betetzen dituen bertze onuradunik.

Horiek horrela, bi aldeek beren arteko hitzarmena arautzeko asmoarekin hitzarmen hau egin dute.

HITZARTU DUTE:

Lehenik. Mankomunitateak, 2025eko urriaren 31n egindako bileran onartutako aurrekontua aintzat hartuta, 12.960,52 € euroko dirulaguntza emanen dio elkarteari 2026an, Bortziritako Bertso Eskolaren bitartez aipatutako egitasmoa gara dezan. Horretarako mankomunitateko aurrekontuan entitatearen izenarekin izendatutako partidako kreditua erabiliko du (E 3350 4820002 partida). Mankomunitateak dirulaguntza bi zati berdinetan ordainduko du, elkarteak eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondotik.

Bigarrenik. Elkarteak bere gain hartuko du hauek garatzea:

1. *Bertsolaritza Irakaskuntzan* programari dagokionez:
 - a. Ikastetxeetan programa hori emateko behar diren irakasle espezialistak kontratatuko ditu.
 - b. Ekaina bukatu baino lehen, elkarteak Bortziritako D ereduko Lehen Hezkuntzako ikastetxeei programa honetan parte hartzeko aukera eskainiko die. Eskaera guztiei ezin bazaie erantzun, kontratu hau sinatzen duten bi aldeen artean adostuko dute zein ikastetxetan eskaini ikastaroak, lehentasuna emanaz azken ikasturtean programa honetan parte hartu ez duten ikastetxeei.
 - c. Programa abian jarriko den ikastetxe bakoitzean ziklo edo ikasturte bati eskainiko zaio, betiere Lehen Hezkuntzako 3. zikloko ikasleei. Ordu-tegiak elkartearen eta ikastetxeen artean adostuko dituzte. Halaber, programan parte hartuko duten ikasleek jarduera osagarrietan parte hartu ahalko dute.
2. Haur eta helduen bertso eskolari dagokionez:
 - a. Elkarteak ikasturtearen hasieran bertso eskolan aritzeko izen ematea zabalduko du bortz herrietara, nahi duen orori ikastaroetan parte hartzeko aukera emanaz; gutxieneko adina 9 urtekoa da.
 - b. Elkarteak ikasturteko izen emateari buruzko informazioa helaraziko dio mankomunitateari.
 - c. Taldea osatzeko gutieneko kide kopurua lau lagunekoa izanen da. Halere, hiru ikaslek edo gutiagok izen emanaz gero, elkartearen esku geldituko da taldea abiarazteko aukera. Aitzinera egitea erabakitzen badu, bigarren lauhilekoaren hasieran berriz eskainiko du taldea osatzeko aukera.
3. Elkarteak bertsolaritzarekin lotutako jarduerak (Bertso Eskolen Eguna, Eskolarteko Txapelketa, Bertsopaper Lehiaketa, topaketak, taldeen arteko lehiaketa, sariketak, bertso saioak...) antolatuko ditu. Jarduera horien helburua da bertsolaritza herritarrengana hurbiltzea eta betiere bertso eskoletan aritutako ikasleei horietan parte hartzeko aukera ematea.
4. Elkarteak mankomunitateak emandako dirulaguntzaren berri emanen du, ahal delarik erakundearen logotipoa erabiliz.

Hirugarrenik. Aurkeztu beharreko dokumentazioa eta epeak.

1. Elkarteak dokumentazio hau aurkeztu beharko du ekainaren 30eko 23:59 baino lehen:
 - a. Ikasturte bukaerako ebaluazioa eta memoria.
 - b. Hurrengo ikasturtean Bertsolaritza Irakaskuntzan programan parte hartzeko eskaera egin duten ikastetxeen zerrenda.
 - c. Ekitaldi ekonomiko horretako aurrekontua, sarrerak eta gastuak xeheki zehaztuz.
2. Elkarteak dokumentazio hau aurkeztu beharko du urriaren 31ko 23:59 baino lehen:
 - a. Hasitako ikasturteari buruzko informazioa: sortutako taldeei buruzko informazio xehea (kopurua, ordutegia, tokiak...), ikasleei buruzko informazioa (izen-abizenak, adina, herria...), eta irakasleei buruzko informazioa.
 - b. Memoria ekonomikoa. Sarrerak eta gastuak xeheki zehaztuko dira, eta horiek justifikatzen dituzten fakturak eta agiriak erantsiko dira. Sarrerei dagokienez, bertzelako erakunde publikoetan eta bertze autonomia erkidego batzuetako administrazioetan eskatu edo harturiko laguntza guztiak espresuki adieraziko dira,



bai eta partikularrek emandakoak edo enpresa pribatuetako bertzelako diru sarrerak (babesak eta publizitatea, errate baterako). Gastuei dagokienez, ongi zehaztu behar dira langileak eta kolaboratzaileak kontratatzetik sorturiko gastuak, ustiapen gastu orokorrak eta funtzionamendu eta banaketa gastuak zein eta zenbatekoak diren.

- c. Erantzukizunpeko adierazpena, I. eranskineko ereduak behar bezala beteta.

Laugarrenik. Egin beharreko tramiteak eta aurkeztu beharreko dokumentuak nahitaez mankomunitatearen egoitza elektronikoaren bidez aurkeztuko dira, honako helbide honetan: <https://mbortziriak.sedipualba.es/carpetaciudadana/tramite.aspx?idtramite=10552>

Bosgarrenik. Mankomunitateak, bere aldetik, eta dirulaguntzak arautzen dituzten irailaren 17ko 38/2003 Legeari eta azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeari loturik, honako eginkizun hauek beteko ditu:

1. Emandako dirulaguntzaren kontrola eginen du laguntza oinarritzen den helburua eta ekintzak benetan bete direla egiaztatu ahal izateko.
2. Aipatu legeei jarraituz, dirulaguntzaren oinarriak bete ez direla frogatzen bada edota egoki egiaztatu ez direla ikusiz gero, diru publikoa berreskuratzeko prozedura eta espedienteak izapidetuko ditu.

Seigarrenik. Hizkuntza irizpideak

Onuradunaren eta mankomunitatearen arteko harremana, ahozkoa nahiz idatzizkoa, euskaraz izanen da. Halaber, onuradunak herritarrekiko ahozko nahiz idatzizko harremanean euskararen erabiliko du beti, bere ohiko jardueran eta mota guzietako komunikazioetan, eta euskararen kalitatea bermatuko du ahozko eta idatzizko ekintza guzietan.

Zazpigarrenik. Berdintasun irizpideak.

Diruz lagundutako proiektu eta/edo jardueraren ondorioz sortzen den dokumentazio, publizitate, irudi edo material guzietan:

- Hizkuntza ez-sexista erabiliko da.
- Emakumeak diskriminatzen dituzten irudiak edo estereotipo sexistak saihestuko dira.
- Berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzukidetasunaren eta genero rol eta identitate aniztasunaren balioak dituzten irudiak sustatuko dira.

Zortzigarrenik. Hitzarmen honen iraupena urtebetekoa da. Hala ere, bi aldeak ados egonez gero, mankomunitatearen aurrekontu propioak horretarako aukera ematen dion neurrian eta betiere dagokion diru izendapena aurreikusi bada urteko aurrekontuan, hitzarmenaren iraupena urtero luzatu ahal izanen da. Betiere gehienez lau urteko iraupena izanen du, luzapenak barne.

Bederatzigarrenik. Hitzarmen honen interpretazioa mankomunitateari dagokio, eta elkarteak mankomunitatearen erabakiak onartu beharko ditu. Balizko auzigaiak bide administratiboan konponduko dira, indarrean dauden legezko xedapenekin bat.

Hamargarrenik. Eskatzaileen datuak horiek babesteari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera tratatuko dira.

Eta horrela jaso gera dadin, bi aldeek agiri hau onartu eta sinatu dute.

Bortziritako Zerbitzuen Mankomunitatea
Patxi Castillo Graciarena

Nafarroako Bertsozale Elkarte
Nerea Bruño Artazcoz

I. ERANSKINA

Izen-abizenak:

NAN:

Ordezkatzen duen erakundea eta kargua:

NIRE ERANTZUKIZUNPEAN ADIERAZTEN DUT:

1. Bortzirieta Zerbitzuen Mankomunitatearekin (data)n sinaturiko hitzarmenean xedatutako baldintzak betetzen ditudala.
2. Hemen adierazitako datuak eta aurkeztutako dokumentazioa egiazkoak direla.
3. Dirulaguntza Orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikulua 2. eta 3. apartatuen eta 34.5 artikuluan xedaturikoaren arabera ez nagoela sartuta dirulaguntza publikoak itzularazteko edo zigortzeko inongo prozeduratan.
4. Eskabide honekin batera baimena ematen diodala mankomunitateari behar den informazio guztia biltzeko, hemen xedatutakoa eta aurkeztutakoa egiaztatzeko. Hori guztia Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan adierazitakoaren arabera.
5. Helburu bererako bertze erakunde publiko nahiz pribaturi dirulaguntza/aportazio eskaerari dagokionez (markatu dagokiona):
 - Ez diodala bertzelako erakunde publiko nahiz pribaturi dirulaguntza/aportazio eskaerarik egin.
 - Bertze erakunde publiko nahiz pribaturi edo pertsona fisikori dirulaguntza/aportazio eskaera hau egin diodala edo jaso dudala:

ERAKUNDEA/PERTSONA	KONTZEPTUA (Adibidez: , jendeen aportazioa, boletoen salmenta, ostatuen aportazioa, etab.)	ZENBATEKOA	EGOERA (Ebatzi gabea, ebatzita baina kobratu gabe edo kobratuta)

(Data eta sinadura)